



**ETXEAN ZAUDE**



*Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan*

*Informazio sozioekonomikoaren tratamendua  
eta klase sozialen errepresentazioa eta protagonismoa*



**iparhegoa**

IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA



## **AURKEZPENA**

### **1. AZTIKERen IKERKETA:**

#### **3. ZATIA: INFORMAZIO SOZIOEKONOMIKOAREN TRATAMENDUA ETA KLASE SOZIALEN ERREPRESENTAZIOA ETA PROTAGONISMOA.**

##### **1.1. SARRERA**

##### **1.2. IKERKETAREN MARKO TEORIKOA**

##### **1.3. METODOZKO OHARRAK:**

- **Xehetasun teknikoak (laburpena)**
- **Erabilitako teknika**
- **Laginketa**
- **Behaketa fitxa**

##### **1.4.- IKERKETAREN LABURPENA**

### **2. LAB SINDIKATUAREN ONDORIOAK**

## AURKEZPENA

IPAR HEGOA FUNDAZIOAN, AZTIKER ikerketa soziologikoen zentroak egindako azterlanarekin, berria ez den eta hedabide publikoen rolaekin zerikusia duen kezka sozial bat jorratu nahi izan dugu, alegia, EITB taldeak hedabide gisa betetzen duen rola aztertu nahi izan dugu. Azterlanak galdera bati erantzun nahi dio, hau da, argitu nahi du ea EITB taldeak betetzen ote duen, alor informatiboan, zerbitzu publiko bati exijitu behar zaiona: kalitatezko zerbitzu informatiboa eskaintzea hedabidea sortu duen gizarteari, gogoan izanik, gainera, zergapekoen diruz ordaintzen dela.

Azterlanaren aurkezpen orokorrean azaldu genuen bezala, planteatutako galderari hiru faktoreren inguruan erantzun nahi izan diogu:

- Lurraldetasunaren tratamendu informatiboa eta subjektu politiko bakoitzaren protagonismoa.
- Emakumeen eta gizonen protagonismoa eta errepresentazioa.
- Informazio sozioekonomikoaren tratamendua eta klase sozialen errepresentazioa eta protagonismoa.

Orain dela hilabete batzuk, azterlanaren lehenengo eta bigarren zatiaren ondorioak argitaratu genituen. Hemen, bi zati horien ondorioak gogoratuko ditugu laburbildurik, zeren hori lagungarria baita hirugarren zatia -azkena- ulertzeko, hots, faktore sozioekonomikoari buruzko zatia, orain aurkezten duguna.


**Lurraldetasunaren, identitate nazionalen eta subjektu politikoaren protagonismoaren** tratamenduari buruzko lehen zatiaren ondorioak hauexek dira:

- 1.- "EZ-informazioaren" aldeko apustua.
- 2.- Euskal Herria ez da existitzen. Esparru autonomikoaren erreferentzia indartu egiten da gainean dagoen errealitate sozial eta politiko baten zati gisa: espainiar Estatuaren zati gisa.
- 3.- Albistegiak alderdikieriaz erabiltzen dira, eta ezker abertzaleari buruzko informazioak iragazkitik pasatzen dira.
- 4.- Komunikazio ereduak baztertu egiten ditu bai bere errealitate propioa eta bai bere jardunaren hartzaila den gizartea.
- 5.- Komunikazio eredu honen kudeaketak tentsioak sortzen ditu hedabideetako plantillak osatzen dituzten profesionalengan.

**Emakumeek eta gizonek albistegietan duten protagonismo eta errepresentazioari buruzko** ondorioak hauexek dira.

- 1.- Emakumeen ikusezintasuna.
- 2.- Emakumeen eta gizonen errepresentazio estereotipatua.
- 3.- Emakumeen eta gizonen errepresentazio hierarkiko eta diskriminatzailea. Albistegien egituraketa androzentrikoa.
- 4.- Mugimendu feminista ez da existitzen albistegietan, eta gutxi dira berdintasuna jorratzen duten irudiak eta emakumeen diskriminazio-egoera islatzen duten albisteak.
- 5.- Emakumeen aurkako indarkeria. Tratamendu sentsazionalistarako joera, berezko indarkeria estrukturaltzat hartu beharrean.

Betetzen al du EITB komunikazio taldeak bere zeregin informatiboa zerbitzu publiko moduan



Aurreratu dugun bezala, orain hirugarren eta azken zatia aurkezten dugu, alegia, **informazio sozioekonomikoaren eta klase sozialen errepresentazio eta protagonismoaren tratamendua aztertzen duen zatia**. Hau da, oraingo krisi ekonomiko eta sozialaren testuinguruan, zer-nolako informazio sozioekonomikoa transmititzen da? Zer-nolako balorazioa egiten da bere arrazoiei buruz? Zer-nolako balioak transmititzen dira? Zer interes defendatzen dira? Nortzuk dute hitza?

Lehenengo eta bigarren zatietan bezala, azterlana egiterakoan kontuan hartu dira ETB1, ETB2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiren eguneroko albistegiak, 2010eko irailetik abendura bitartean. AZTIKEREk aplikatu eta azterlanean bertan zehaztasunez azaltzen den metodologiaren arabera, **kate guztietako 28 albistegi** aztertu dira, asteko egun guztietakoak; guztira, **1.065 albiste** aztertu dira.

Aipatu dugun bezala, ukaezinak dira masa-hedabideen potentziala eta gizartean duten eragina, sozializazio-eragile bezala eta iritzi eta balioen sortzaile bezala.

Albistegia osatzen duten elementu guztien atzean, aukeraketa-prozesu bat dago, batzuetan inkontzientea eta beste askotan kontzientea. Gertaera, terminologia, espazio, irudi eta pertsonaiak pentsamendu kolektiboa definitzeko tresnak dira. Era horretan, eta informazio sozioekonomikoaren tratamenduari buruzko ikerketa-eremuarekin jarraituz, azterlanak agerian uzten du EITB taldearen albistegiek talde menderatzaileen interesen aldeko informazioa hedatzen dutela gehienbat, eredu neoliberalari dagokion hegemonia ideologikoa mantentzen lagunduz.


Ondorioen atalean garatzen dugun bezala, informazio ekonomikoa eduki sozialik gabe aurkezten da; ez dago pertsonarik, ezta behar sozialik ere, bilakaera ekonomikoan. Prozesu ekonomikoa pertsona adituen kontua da, indize makroekonomikoen eta merkatuaren eta burtsaren artean kokatutako interes zehaztugabeen kontua.

EITBk enpresari-klasearen onerako interpretatzen du informazioa, transmititzen dituen balioetatik, elikatzen dituen estereotipoetatik eta botere instituzionalari egozten dion rol menderatzailetik; horren aurrean, langile-klasea bere imaginariorik gabe eta bere errepresentazio kolektiborik gabe aurkezten du, ikusle eta/edo kontsumitzaile diren indibidualtasun bihurtuta.

Hirugarren eta azken azterlan honekin agerian geratzen da, berriz ere, azterlan honi izenburua eman dion galderaren erantzuna ezezkoa dela. Horregatik, hirugarren azterlan honen ostean, arrazoi ugari daude galdera-ikurrak desagerrarazteko eta garbi uzteko EITB komunikazio-taldeak ez duela betetzen bere zeregin informatiboa, zerbitzu publikoa den aldetik.

[a]  
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak



**EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA  
TRATAERA SOZIOEKONOMIKOA  
ETA KLASA SOZIALEN  
ERREPRESENTAZIOA, 2010**

Bezeroak:

iparhegoa  
IKERKETA  
SABIALERAKO  
FUNDATZIOA

*baietz!*  
FUNDATZIOA



# 1.- AZTIKERREN IKERKETA

## 3. ATALA: Informazio sozioekonomikoaren tratamendua eta klase sozialen errepresentazioa eta protagonismoa.

### 1.1.- SARRERA

Txosten honetan EITBko lau hedabideetako albistegien azterketaren datuak aurkezten dira, hain zuzen ere, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko albistegietako datuak. Aipatu azterketa 2010eko iraila eta azaroa bitartean egin da.

Bi izan dira ikerketa honen helburuak: alde batetik, albistegietan eskaintzen den egoera sozioekonomikoaren trataera informatibo-diskurtsiboa behatzea; bestalde, klase sozialen errepresentazioaren neurketa burutzea.

Txostenaren edukiei dagokienez, lehen atalean, ikerketaren **ohar metodologikoak** aurkitzen dira. Atal honetan, sortutako eduki-azterketarako fitxa, kronograma, birkodetzeen azalpena, e.a. aurkezten dizugu.

Albistegien **antolaketa**ren inguruko informazioa topa daiteke bigarren atalean: albisteen ordena, agerpena eta denborak neurtuta.

Hirugarren atalean, albistegien **tematika aztertu dugu**. Hau da, zer-nolako gaiak lantzen diren eta faktore sozioekonomikoarekin nolako lotura duten aztertu dugu era berean.


Laugarren atalean, **informazio sozioekonomikoaren trataeraren azterketa** burutu dugu, klase ordezkariarekin lotura duten aspektu desberdinak behatuz. Ikertutako gai zehatzaren aspektu nagusietako bat izanik, ikerketaren atalik zabalena biltzen duela ikus daiteke.

Atal honetan lau iker-arloen arabera egin dugu ikerketa:

1. *Subjektuak*. Albistegietan ikusi eta entzuten ditugun pertsonaien klasearen arabera banaketa. Modu honetan, EITBk zein subjekturi eskaintzen dion ahotsa erantzun nahi izan zaio.
2. *Estereotipoak*. Klase sozial bakoitzari nolako estereotipoak atxikitzen zaizkion behatu dugu.
3. *Baloreak*. Elementu sozioekonomikoak dauzkaten albisteetan -erregistratu ditugunak- indartzen diren iritzi eta baloreak zeintzuk diren ikertu da.
4. *Azterketa ikonikoa*. Klase desberdinek nolako roleri erantzuten dieten aztertu dugu.

Bosgarren atalean, **gai espezifiko**en azterketa burutu dugu. Honetarako, egoera sozioekonomiko eta soziolaboralarekin harreman zuzena duten gai tematikoen lanketa eta trataera informatiboa analizatu dugu.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan





4 izan dira atal honetan aztertu ditugun gaiak:

- Krisialdi ekonomikoa.
- Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (EEE).
- Langabezia.
- Lan istripuak.

Gai bakoitzaren baitan arazo zehatz horren difusio komunikatiboari eragiten dioten faktore desberdinak neurtu ditugu, problematikaren dimentsioaren tamaina islatzen dituzten elementu baloratiboak behatuz.

Ez dugu eskertu gabe utzi nahi lan honen osaketarako eta zuzentasunerako bere denbora, esperientzia, ezagutza eta gogoia debalde eskaini digun oro. Haien laguntzari esker, lan honen kalitatea bermatua dago. Mila esker zuei.

## 1.2.- IKERKETAREN MARKO TEORIKOA

Komunikabideen papera garrantzi handikoa suertatzen da pertsonen sozializazio prozesuan zehar, lehentasunezko agente bezala agertuz. Beste gauza batzuen artean, iritziak sortu, baldintzatu edota egonkortzeko funtzioa betetzen dute komunikabideek.

Albistegia osatzen duten faktore desberdinak, efektu bat edo beste lortzeko ikuspegiarekin aukeratuak dira.

Aukeratu eta erakusten zaizkigunak **pentsaera kolektibo** zehatz bat sortu eta definitzeko bitartekoak dira. Kasu honetan, albistegiak botere harreman mota baten ikuspegia jendarteratzeko bitartekoak direla ulertuta aztertu ditugu.

Botere eta aberastasunaren banaketaren azterketa funtsezko elementua izan da, zehar lerro gisa ikerketa gidatu duena.

Honetarako, esku artean duzun ikerketa, bi iker arlo nagusitan berezitu dugu, bere izenburuak dien moduan: informazio sozioekonomikoaren trataera, alde batetik, eta klase sozialen errepresentazioa bestetik.

Hau da, egungo eredu sozioekonomikoaren baitan ematen den botere banaketa zein modutan irudikatzen den EITBko albistegietan.

Ikerketan, boterea nola ageri zaigun aztertu dugu (boterea zer den, alegia), eta, bestetik, botere horrekiko nolako harremanak erakusten zaizkigun.

Boterearen ulerkeran, eraikuntza sozial gisa ikusita, komunikabideek duten papera berebizikoa suertatzen da.

Honengatik, klase sozialen agerpen maila izan da neurgailu garrantzizkoa, adierazpen kuantitatibo eta kualitatibo honek adierazten baitigu indar harreman honen presentzia.

Informazio sozioekonomikoaren trataeraren azterketari dagokionez, botere eta aberastasun banaketaz ari garela argitu behar da. Albiste baten ikuspegi sozioekonomikoaz aritzerakoan, albiste horretan dagoen botere banaketaz ari gara. Beraz, izan langabeziaren datuak eskaintzeko adierazle motak aztertzerakoan edota klase instituzionalaren estereotipoak behatzerakoan, botere banaketaren araberako "betaurrekoak" jantzi ditugu.

Marko teorikoaren atal honetan zehaztutako mugarren baitan laburbilduz, ikerketa honen xedea EITBk bere albistegien bidez sustatzen duen boterearen errepresentazioa eta bere banaketa zein den aztertzea izan da.

### **1.3.- METODOZKO OHARRAK**

Ikerketaren helburu nagusia EITBko albistegien klase trataera zein den jakitea izanik, edukien azterketa izan da erabilitako prozedura. Zehazki, grabatutako albistegietako hitzeko zein irudi bidezko edukien erauzketarako Fitxaren bitartez burutu dugu azterketa, modu honetan EITBko eduki eta diskurtsoen azterketa kuantitatiboa burutuz.

Laginaren unitatea albistegia izan da. Albistegia, aurkezle propioekin telebista zein irratiko gainontzeko programaziotik berezituta eta giza baliabide zein baliabide tekniko propioekin garatutako informaziorako tarte da. Honetarako, telebistako laginean Kiroleko atala kontutan hartu da, ez, ordea, Eguraldia.

Irratiaren kasuan, Kultura, Trafikoa eta Kiroleko atalak aintzat hartu dira, eta Euskadi Irratiaren kasuan, Gertukoak saila ere.

Azterketa-unitate gisa albistea erabili dugu. Behaketarako oinarritzko elementua izan da, albisteak izan direlako edukien araberako azterketa egiteko erabilitako informazio unitateak. Informazio unitate hau identifikatzea ezinbestekoa da, modu operatibo batean albistegien hitzeko zein irudi bidezko azterketa gauzatzeko.

Albistea, beraz, albistegietako informazio orokorra eskaintzen digun elementu nagusi da.


Albisteak tematikoki zedarritu ditugu, egitura aldetik ere gutxienik aurkezle baten informazio edo sarrera bat eta gertakari edo ekintza bat exijitzen duelarik.

Emaitzak ere unitate honen azterketaren arabera aurkezten ditugu.

Kodifikazioaren bitartez, albiste bakoitzaren azterketak emandako datu gordinak sailkatu ditugu.

Sailkapen hauek, era berean, eraldatu eta berriro sailkatuak izan dira kategoria berrietan birkodetzeen bitartez.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



## • LAGINKETA

Unibertsoa EITB kate publikoko eguneroko albistegiak dira, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadikoak, alegia.

Lagina unibertso osoaren argazki ordezkagarriena izan dadin, hedabide bakoitzean asteko egun guztiak bilduko dituen kronograma osatu dugu.

Astegun guztietako hedabide guztietako albistegi bana aukeratzeko kronograma burutu dugu, beraz.

Hedabide bakoitzeko albisteen artean gutxieneko 7 egunetako tartea utzi dugu, bata eta bestearen artean, berri zehatz batek eduki zezakeen "kutsadura" ondorengo egunetako albistegietan ekiditearren.

Ikerketaren azterketarako, oinarrizko unitateak izan diren 1.066 albiste behatu ditugu orotara. Hedabideka, modu honetan banatu dira albiste hauek:

- ETB1- 209 albiste.
- ETB2- 270 albiste.
- Euskadi Irratia- 329 albiste.
- Radio Euskadi- 258 albiste.

Telebistaren kasuan, gaueko albistegiak izan dira aztertuak: ETB1en gaueko 20.00etan hasita, eta ETB2ren kasuan, gaueko 21.00etan hasita.

Irratiari dagokionez, eguerdiko albistegiak landu dira: Euskadi Irratiaren kasuan, 13.00etatik 14.30ak bitartean emititzen dena, eta Radio Euskadin 13.00etatik 15.00ak bitartekoa.

Orotara, 95.644 segundotako tartea jorratu da, denborak honela banatzen direlarik lau hedabideen artean:

- ETB1- 13.969 segundo/232,8 minutu/3,9 ordu.
- ETB2- 18.975 segundo/316,3 minutu/5,3 ordu.
- Euskadi Irratia- 29.344 segundo/489,1 minutu/8,2 ordu.
- Radio Euskadi- 33.356 segundo/555,9 minutu/9,3 ordu.

## • LANDA LANA

Albistegiak, 2010eko irailaren 18tik azaroaren 8a bitartean emititutakoak grabatu dira, honako kronograma hau jarraituz:

## • BEHAKETA FITXA<sup>1</sup>, AURREKODIFIKAZIOAK ETA BERKODIFIKAZIOAK

Albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala ere sortu dugu. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Sakonean jorratu nahi izan diren aldagaiekin osatu dugu Azterketa Fitxa.

Fitxa honek, sarreran aipaturiko bost atal nagusi biltzen ditu:

- *Egitura*. Albistegiaren antolaketaren behaketarako atala. Albistegiaren baitako kokapena, informazio tematikoa eta iraupena eskaintzen dizkigu.
- *Bloke tematikoa*. Albisteetako gai tematikoak aztertu ditugu, gure ikergaia den generoaren errepresentazioarekin duten harremana neurtzeko xedez.
- *Informazio sozioekonomikoaren trataera*. Hitzeko zein irudi bidezko informazioa eskaintzen dizkiguten aldagaiek osatzen dute. Honen baitan adierazitako lau azpiatalak jorratu ditugu: subjektuak, estereotipoak, baloreak eta azterketa ikonikoa.

Hitzeko informazioaz ari garenean, bi informazio mota hartzen dira kontuan: batetik, kazetarien adierazpenak, ahotsaz, hitz eginez entzun ditugunak; bestetik, teleprinterretan idatziz agertu direnak, hitzekoa baita bertan ageri den informazioa.

- *Gai espezifikoak*. Atal berezitu batean aztertu dugu ikergaiarekin harreman zuzena duten zenbait gai zehatzen informazioaren lanketa. Albiste hauei nolako trataera ematen zaien izan da aztertu duguna, elementu desberdinei erreparatuta. Aztertutako gaiak hauek dira: Krisialdi ekonomikoa, Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (hemendik aurrera EEE), Langabezia eta Lan istripuak.

Honetaz gain, albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala ere sortu dugu. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Aldagai bakoitzerako kategoria ezberdinen aurre-kodifikazioa egin da. Modu honetan albiste bakoitzaren behaketan agertzen ziren elementuak datu base batean jaso dira.

Behin datu basea sortu eta ustiatuta, zenbait kategoria birkodetuak izan dira, irakurlearentzat aurkezpena ulergarriagoa eta irakurterrazagoa izan dadin eta emaitzak esanguratsuak izan daitezten.

Ikergaiarekin harreman zuzenena duen aspektua izanda, subjektuen klaseen sailkapena hiru kategoriei jarraiki egin dugu. Klasearen inguruko teorizazio maila sakonean murgildu gabe, klase enpresarial, instituzional eta langileriaren azterketa burutu dugu.


Laugarren kategoria bat "Beste" bezala erregistratu dugu, eragileak modu neutro batean agertu diren kasuetarako, edota definituriko 3 kategorietako bati erreferentzia zuzena egiten ez dioten kasuetarako (kirolariak batik bat).

Jarraian, birkodetze garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

---

<sup>1</sup> Behaketan erabilitako kontzeptu zein kategoria guztiak zehazki ezagutzeko eranskinetan gehitzen dugu behaketa fitxa osorik.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



Albistearen ordena edo garrantzia: Albistegietan azalpen ordenaren arabera multzokatu ditugu albiste ezberdinak. Horrela, lehen bost albisteek lehentasunezko albisteak kategorian birkodetu ditugu. Seigarren albistetik hamargarrenera, berriz, Bigarren mailako albisten kategorian. Beste albiste guztiak, azkena izan ezik, Bloke nagusia kategoriarara eta azkenik, Azken albisteak kategorian jaso ditugu albistegiak itxi dituzten albisteak.

#### **1.4.- IKERKETAREN LABURPENA**

##### **• ALBISTEEN ANTOLAKETA**

- EITBko albistegietan Kirola da gehien lantzen den gaia, notizia kopuru (%29,7) zein hauei eskaintzen zaien denborari dagokionean (%33,1).

- Ekonomiako gaiak bosgarren maila batean aurkezten dira albistegietan, notizi kopuru osoaren %9,4a osatzen dutelarik.

##### **• BLOKE TEMATIKOA**

- Kirola izanik lantzen den lehentasunezko gaia, informazio zedarritua begiratuta Futbola gehien eskaintzen den tematika dela ikus daiteke (%13,4a). "Laguntza sozialak" (%0,8a), "Adierazle sozioekonomikoak" (%0,8a) edota "Zerbitzu Sozialek" (%0,9a), ordea, oso presentzia urria dute.

- Ekonomiako atalean eskaintzen diren gaiei erreparatuta, presentzia gehien dutena "Ekinbide ekonomikoak (azokak...)" direla (%21a) ondorioztatzen da. Gertaera soziorabonalak %14,0a dira eta Krisialdi ekonomikoari loturikoak %12,0a.

- "Zerbitzu sozialak", "Osasuna" eta "Zientzia eta Teknologia"ri buruzko albisteak, gai kopuru osoaren %3,0a dira.

- EITBko albistegietan eskaintzen diren albiste kopuruaren %9,4a Ekonomia atalean kokatuta bada ere, ikuspegi sozioekonomikoa dutenak %13,3a dira. Ikuspegi sozioekonomikoa, beraz, ez dela Ekonomia atalean erabat integratzen ondoriozta daiteke.

##### **• INFORMAZIO SOZIOEKONOMIKOAREN TRATAERA**

- Subjektuei dagokienean, agertzen den pertsonaien %46,6a klase instituzionalekoa da. Langile klaseko ordezkari edo kideek agerpen kopuruaren %20,4a dira eta klase enpresarialekoak %6,7a. "Beste" kategorian sailkatutakoek agerpen kopuruaren %26,1a osatzen dute.

- Subjektuei eskainitako denborari dagokionean antzeko joera ikus daiteke: klase instituzionalari denboraren %47,1a, langile klaseari %18,5a eta klase enpresarialari %8,2a. "Beste" kategoriako ordezkariari %26,2a.

- Klase instituzionala, bestalde, Politika (%83,4a), Ekonomia (%48,9a), Nazioartea (%50,7a) eta Kultura (%72a) ataletan presentzia gehien duena da.

- Agertzeko moduari dagokionean, Klase enpresarialak dituen agerpen kasuen %80,9an korte bidez izaten da, beraz, enpresariak protagonista direnean euren ahotsa entzun egiten da.

- Subjektuen funtzioari dagokionez, klase enpresarialak eta klase instituzionalak bozeramaile papera jokatzen dute kasuen %44,4ean eta %62,1ean hurrenez hurren. Langile klasearena, ordea, %19,6koa da.

- **Estereotipoen** gaineko azterketak, klase enpresarialaren ikuspegi kolektiboaren (%60,0) irudia indartzen dela adierazten digu.

Klase instituzionalaren kasuan ere, ikuspegi kolektiboa indartzen dela adierazten digute datuok, kasuen %67,6an.

Langile klasearen kasuan, aldaera kritikatzailer (%38,1a) eta sufrizailer (%35,7a) islatzen da estereotipoen bitartez.

- Irudi bidezko estereotipoek antzeko datuak erakusten dizkigute.

- Albisteek aurkezten dizkiguten **baloreek**, nagusiki, Lehia (%18,8a) eta Konfrontazioa (%14,6a) islatzen dizkigute.

## • GAI ESPEZIFIKOAK

### KRISIALDI EKONOMIKOA

- Krisialdi ekonomikoaren inguruko albisteak aurkezterakoan, datu ekonomikoak eskaintzen direnean BPGaren araberakoak ematen dira.

Ez da klase edo maila sozialen araberako banaketaren inguruko daturik eskaintzen.

### EEEak


- Egindako behaketan, Enplegua Erregulatzeko Espedienteei buruzko albisteak kasu isolatu gisa aurkezten direla ondorioztatu dugu.

- Espedienteen aplikazioaren arrazoen trataera behatuta, merkatuaren logika propioagatik dela adierazten da kasu gehienetan.

### LANGABEZIA

- Langabezia lantzen duten albisteak estatistika gisa lantzen dira.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



- Arrazoi edo faktore nagusiei erreparatuta ere, krisialdi ekonomikoaren eragina dela adierazten da kasu gehienetan.

### **LAN ISTRIPUAK**

- Albistegietan lantzen diren lan istripuak albiste isolatu gisa eskaintzen dira.

- Gertakari hauek duten transzendentzia publikoari eskaintzen zaion garrantziari dagokionez, kasuen erdian (%50,0a), gertakari horrek duen eragina bilatzen da.

Erreakzio hauek kasuen erdian, %50,0a, sindikatu edo langileriarenak eskaintzen dira, eta beste erdia, %50,0a, instituzio politikoek.

## 2. - LAB SINDIKATUAREN ONDORIOAK

EITBko albistegiek informazio sozioekonomikoari ematen dioten tratamenduari buruz eta klase sozialen errepresentazio eta protagonismoari buruz AZTIKERek egindako azterlanen emaitzen artean, azterlanaren aurreko zatietan bezala, bost ondorio azpimarratuko ditugu.

Hona hemen zein diren ondorio horiek:

**1.- Eremu sozioekonomikoari buruzko informazioak oso tarte gutxi betetzen du informazioaren denboran, alegia, % 7,4 baino ez. Gainera, informazio horrek desberdintasun sozialak eta klase-interesen kontraesanak ezkututzen ditu.**

**2.- Informazioak enpresari-klasearen aldeko errepresentazio estereotipatua eskaintzen du, ongi kolektiboari lotuta. Langile-klaseari buruzko ikuspegia, aldiz, negatiboa eta biktizatzailea da.**

**3.- Oso informazio gutxi ematen da laneko istripuei buruz; gertaera isolatu gisa aurkezten dira, eta kasuen % 85ean zorigaitzaren ondorio bezala aurkezten dira.**

**4.- Oraingo krisiaren testuingurua fenomeno ekonomiko bezala aurkezten da, eta bere arrazoiak enpresarien eta instituzioen jardunetik kanpo kokatzen dira; beraz, erantzukizunik aipatu gabe eta kritikarik egin gabe hitz egiten da krisiari buruz.**


**5.- Transmititzen diren balioek indibidualismoa indartzen dute, kolektibotasunaren aurrean; era horretan, ideologia menderatzailea mantentzen eta onartzen laguntzen dute.**

**1.- Eremu sozioekonomikoari buruzko informazioak oso tarte gutxi betetzen du informazioaren denboran, alegia, % 7,4 baino ez. Gainera, informazio horrek desberdintasun sozialak eta klase-interesen kontraesanak ezkututzen ditu.**

Azterlanaren lehenengo zatian bertan aipatu genuenez, kirolari buruzko informazioa da EITBko albistegietan denbora (% 33) eta albiste (%29,7) gehien hartzen dituen; kontuan hartu behar da, gainera, kirol informazioaren % 45 futbola dela. Horrenbestez, euskal talde pu-blikoaren apustu informatiboa kritikatzeko dugu, bere asmoa gizartea entretentzea baita, besterik gabe. Esanguratsua da ikustea nola, oraingo testuinguru sozioekonomikoan, kirolari (batez ere futbolari, lehen esan dugun bezala) eskaintzen zaion denbora-tartea, politikari, ekonomiari eta nazioarteko informazioari -hirurak batuta- eskaintzen zaionaren adinakoa dela ia.

EITB taldeko albistegietan, albiste gehiago eskaintzen zaizkio futbolari (% 13,5), eremu sozio-laboralari (% 2,7), krisi ekonomikoari (% 1,3), gizarte zerbitzuei (% 0,9), laneko istripuei (% 0,8) eta langabeziari (% 0,6) guztira eskaintzen zaizkionak baino.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan





Informazio ekonomikoan agertzen diren subjektuak hauexek dira: eremu instituzionaleko pertsonak (% 48,9), langile-klaseko pertsonak (% 30,1), eta enpresari-klaseko pertsonak (% 21,1). Agerian geratzen da EITB taldeak alor instituzionalari ematen dion protagonismo garrantzitsua, bai orokorrean eta bai informazio ekonomikoan, langileei ematen zaiena baino bi aldiz handiagoa baita. Era horretan, ekonomiari buruzko informazioa "instituzioen eta enpresarien jokabide onari" buruzko propaganda da gehienbat, guztion ongiaren alde dihardutela azpimarratuz. Horretarako, datu makroekonomiko "eztabaidaezinak" aurkezten dira, totemen parean jarrita. Ekonomia ondo doa, baldin eta BPGa eta burtsaren mozkinak igotzen badira.

Agerpen kopuruaren banaketari eta albistegietako osoko denbora-tarteari dagokienez: albisteen % 46,8 eta denboraren % 47,1 eremu instituzionalari eskaintzen zaizkio; albisteen % 20,4 eta denboraren % 18,5 langileei; albisteen % 6,7 eta denboraren % 8,2 enpresariei; eta albisteen % 26,1 eta denboraren % 26,2 aurreko kategorietan sailkatzen ez diren pertsonari.

Kontuan hartu behar den beste datu esanguratsu bat da enpresariak beren ahotsarekin agertzen direla albistegietan (kortearen bidez, bitartekotzarik gabe) kasuen % 80,9an, eremu instituzionala kasuen % 60,4an eta langileak kasuen % 59,7an.

Eskaintzen den informazio ekonomikotik, albisteen % 21 jarduera ekonomiko orokorreari buruzkoa da (merkatuak eta bestelako jarduerak); albiste soziolaboralak jorratzen dituzten albistek, berriz, % 14 dira (sindikatuak buruzko berriak barne sartuta), krisi ekonomikoa jorratzen dutenak % 12, langabeziari buruzkoak % 6, laneko istripuen ingurukoak % 2, etxebizitzari buruzkoak % 2 eta EEIei buruzkoak % 1.

## **2.- Informazioak enpresari-klasearen aldeko errepresentazio estereotipatua eskaintzen du, ongi kolektiboari lotuta. Langile-klaseari buruzko ikuspegia, aldiz, negatiboa eta biktimizatzailea da.**

Generoaren ikuspegitik egindako azterketan adierazi genuen bezala, hedabideek egiten duten errepresentazio estereotipatua –kasu honetan, enpresari-klasearena, langile-klasearena eta ordezkari instituzionalena- lagungarria da menderakuntza-egiturak betikotzeko, eredu edo botere-harreman berriak ikusteko bidea eragotziz. Robyn Quin-en<sup>2</sup> arabera, estereotipoak baliagarriak dira talde jakin baten interesak babesteko, beste talde batzuen interesen kaltetan; normalean, estereotipoak boterea eskuratzearen, beren aitortza sozialaren edo beren errebindikazioen alde borrokatzen diren taldeei aplikatzen zaizkie; kasu honetan, langile-klaseari aplikatzen zaizkio.

Errepresentazio estereotipatuaren bidez, EITBko albistegiek eremu instituzional eta enpresarialari egozten diote interes kolektiboa ordezkatzeko rola; langileei, berriz, individualtasunaren ordezkari egozten zaie.

Hala, albistegietan, enpresari-klasea ongi kolektiboari lotuta agertzen da kasuen % 60an, eta eremu instituzionala agerpenen % 67,7an. Eremu instituzionaleko pertsonak eta enpresari-


<sup>2</sup> Hedabideen iraultza" liburuko "errepresentazioa eta estereotipoak" testuaren egilea.

klasekoak eledun gisa agertzen dira kasuen % 62,1ean eta % 44,4an, hurrenez hurren. Kasuen % 28an, enpresari-klasea ekintzaile bezala agertzen da.

Txanponaren beste aldean, langile-klasea osatzen duten pertsonak honela agertzen dira albistegietan: pertsona kritikatzailerik soil bezala kasuen % 38,15ean, sufrizten duten pertsona bezala kasuen % 35,7an, pertsona galtzaile bezala kasuen % 9,5ean, eta biktima bezala kasuen % 7,1ean. Gainera, eledun bezala kasuen % 19,6an agertzen dira, baina informatiboki beren bizipen pertsonala/indibiduala kontatzen agertzen dira gehienbat –kasuen % 69,5ean-. Estereotipo horiek indartu egiten dira eskaintzen diren irudien bidez.

Horren azpian dauden estereotipoak eta botere-harremanak agerikoak dira. Langileak gizabanako galtzaileak dira, zoritxarraren mende bizi direnak (laneko istripuak, EEEdak,...), boterea dutenei kontrajarrita; izan ere, enpresariak eta instituzioek ardura eta interes kolektiboa bilatuz erabiltzen dute boterea.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



### **3.- Oso informazio gutxi ematen da laneko istripuei buruz; gertaera isolatu gisa aurkezten dira, eta kasuen % 85ean zorte txarraren ondorio bezala aurkezten dira.**

Jukka Takala Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europar Agentziaren Zuzendariak dioenez, "laneko istripuengatik ez da titular handirik egoten. Errazagoa da hegazkin-istripu batengatik eskandalizatzea". Bere azken datuen arabera, EBn 168.000 pertsona hiltzen dira urtean laneko istripuengatik eta lanarekin zerikusia duten gaixotasunengatik, eta kexu azaltzen da gaiaren larritasuna ez delako islatzen hedabideetan. Adu horren arabera, "hildakoen kopuru handi hori 330 bidaiariko 509 hegazkinen adinakoa da, hau da, ondorio larriko istripu bat ia egunero; baina lanarekin zerikusia duten heriotzak tantaka gertatzen dira, herrialde desberdinetan, arreta publikorik piztu gabe".

Illo horretatik, EITB taldearen albistegiak ez dira salbuespena; izan ere, sozioekonomiaren atalean eskaintzen diren albisteen artean, laneko istripuei buruzkoak % 2 baino ez dira. Gainera, kasuen % 85,7an, zorte txarraren ondorio bezala aurkezten dira istripuak; istripua biktimaren lan-baldintzei lotuta aipatzen duten albisteak, berriz, % 14,3 soilik dira.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak dioenez, enpresaria da bere lantokian gertatzen diren istripuen erantzulea. Hala eta guztiz ere, balizko erantzukizunei buruz EITBk bere albistegietan transmititzen duen informazioan, enpresaria kasuen % 12,5ean soilik agertzen da erantzule bezala; izan ere, kasuen % 50ean esaten da istripua ustekabekoa edo zorte txarraren ondorioa dela, eta kasuen % 35,7an ez da inongo erantzukizunik aipatzen.

Beste datu deigarri bat da enpresariak ez direla inoiz ere agertzen istripuen aurrean duten erreakzioa eta/edo jarrera erakusten. Gertatutako laneko istripuari buruzko informazioan, enpresariaren posizioa ez da albistearen osagai. Hala, laneko istripuaren inguruko informazioan, erreakzioen % 50 sindikatuena da, lan-baldintzak istripuaren kasua direla esanez, eta beste % 50 instituzioena, ikertu egingo dutela esanez.

Informatzeko modu horren bidez, are gehiago ezkututzen da enpresari-klaseak laneko istripuen aurrean duen erantzukizuna, gero eta prekarioagoak diren lan-baldintzen ondorio larrienetako bat direla ezkutatzuz.

**4.- Oraingo krisiaren testuingurua fenomeno ekonomiko bezala aurkezten da, eta bere arrazoiak enpresarien eta instituzioen jardunetik kanpo kokatzen dira; beraz, erantzukizunik aipatu gabe eta kritikarik egin gabe hitz egiten da krisiari buruz.**

Krisi-egoera baloratzerakoan, esanguratsu bezala eskaintzen den datua BPGa da kasuen % 72,7an, eta kasuen % 18,2an soilik informatzen da beraren banaketaz.

Krisiari buruzko kritika ez da inoiz ere agertzen. Ez dago erantzule ezagunik; krisiak enpresarien eta instituzioen jardunetik kanpoko kausa arrotzak ditu, eta ez du azalpenik behar kontrajarritako interesei lotuta, ondasunen banaketari lotuta, eta abar. Horregatik, azpimarratu behar da enpresari-klaseak protagonismo urria duela krisiarekin zerikusia duten albisteetan, alegia, % 9 baino ez. Langile-klasea, berriz, kasuen % 36an da protagonista, eta eremu instituzionala kasuen % 55ean.

EEEak modu isolatuan aurkezten dira, merkatuko logikaren parte gisa. Hala, kasuen % 50ean, krisiaren ondorio bezala informatzen da EEEei buruz, eta beste % 50ean enpresarien jardunaren beharraren ondorio bezala. Langabeziari buruzko informazioa estatistikoa da kasuen % 100ean; hau da, merkatuaren eta krisiaren arabera aldatzen da, eta ez dago ez informazio gehiagorik ez erantzukizunik.

Ikus dezakegu, beraz, EITB taldeko albistegiek krisiari buruz eskaintzen duten informazioan deskonektatuta agertzen direla eremu politiko eta ekonomikoan hartzen diren erabakiak eta erabaki horien ondorio sozialak. Adierazle makroekonomikoez informatzen da. Datuak eta estatistikak pertsonen aurrean jartzen dira, eta, hortaz, ezkutuan geratzen dira ondorio konkretu eta espezifikoa. Informazioa modu isolatu eta zirkunstantzian ematen da. Horrek ekonomiari buruzko ikusmolde "teknizista" eta merkantilista bati erantzuten dio, bere funtzionamenduan ez baititu kontuan hartzen ongizate sozial kolektibo eta indibiduala lortzeko helburuak.

Batzuk "puzzle albistek" aipatzen dituzte manipulazio informatiboaren teknika bezala, hau da, gertaera jakin baten alderdiak eta kausak/ondorioak sakabanatu eta zatikatzen dira, osotasunaren ikuspegia eta hortik ondorioztatzen diren efektuak ikusteko bidea oztopatuz edo eragotziz. Zatiketa denboran egin daiteke (denbora-tarte desberdinetan emitituz) eta/edo espazioan (gertaera albistegien atalen artean banatuz –alderdi ekonomikoak, sozialak, nazioartekoak-), gertaera bere oraingo testuingurutik erauziz.

Modu horretan, informazio ekonomikoa izaera teknikoan jantzen da, eta bere ondorio sozial garrantzitsuak beren testuingurutik ateratzen dira, dela aipatzen ez direlako dela loturirik gabeko informazioa ematen delako.

Horregatik, EITBko albistegiek informazio sozioekonomikoari eskaintzen dioten denbora neurtzeko, azterlanak albiste guztiak hartu ditu kontuan, hau da, ekonomiari eskaintzen

zaion ataletik harago bilatu dira; horren emaitza da informazio sozioekonomikoa albisteen % 13,3an soilik ematen dela. Informazio sozioekonomiko horretatik, % 73,9 ekonomian kokatzen da, % 12 politikan, % 9,2 nazioarteko atalean eta % 3,5 gizartean.

**5.- Transmititzen diren balioek indibidualismoa indartzen dute, kolektibotasunaren aurrean; era horretan, ideologia menderatzailea mantentzen eta onartzen laguntzen dute.**

Noam Chomsky eta Edward S. Herman autoreek "Askatasunaren zaindaria" liburuan aipatzen duten bezala, masa-hedabideen eginkizuna da "dibertitzea, entretenitzea eta informatzea, eta, orobat, balioak, sinesmenak eta jokabide-kodeak txertatzea gizabanakoengan, gizartearen egitura instituzionaletan integra daitezten. Ondasunak kontzentratuta dauden eta klase-interesaren arteko gatazka handiak dituen mundu honetan, rol hori betetzeak propaganda sistematikoa eskatzen du".


EITBk ematen duen informazio ekonomikoan, bereziki indartzen diren balio horiek hauexek dira: lehia -% 18,8-, konfrontazioa -% 14,6- eta pribatizazioa -% 12,5-.

Transmititzen diren balioak alderatzen baditugu eta beren alderdi indibidual edo kolektibotik katalogatzen baditugu, ikus dezakegu izaera indibidualistako balioak % 62,6 direla eta izaera kolektibokoak % 25,5.

Balio indibidualak

- Lehia eta Konfrontazioa: % 33,4
- Pribatizazioa: % 12,5
- Merkantilizazioa. % 8,3
- Arrakasta pertsonala: % 4,2
- Meritokrazia: % 4,2


**Guztira: % 62,6**



Balio kolektiboak

- Kontsentsua: % 8,3
- Elkartasuna: % 6,3
- Berdintasuna: % 4,2
- Kohesio soziala: % 2,1
- Hiritartasuna: % 4,2

**Guztira: % 25,1**



Ikus dezakegu, gainera, enpresarien interesei dagozkien balioak, hala nola pribatizazioa eta merkantilizazioa, % 20,8 direla; interes sozialeko balioak, aldiz –elkartasuna, berdintasuna eta kohesioa soziala-, % 12,6 baino ez dira.

Betetzen al du EITB komunikazio taldeak bere zeregin informatiboa zerbitzu publiko moduan

